



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko otsailaren 1a

9. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- 1/2008 Foru Legea, urtarrilaren 24koa, 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzkoa. Akats zuzenketa (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, Nafarroan etxebizitza hutsen arazoa arintzeko hartuko diren neurri zehatzei buruzkoa, foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua premiatzen da erabaki dezan Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiari eskatzea Pirinioez gaindiko errepidea eraikitzeari uko egiteko erabakia berrazter dezala. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-135 errepidean egin beharrekoak egin ditzan bide horrek dituen azpiegitura-arazoak konponbidean jartzeko. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lantalde bat proposa dezan, talde hori behar diren bilerak egiten has dadin Espainiako Gobernuarekin eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin, Tuterako “El Bocal Real” Nafarroako Foru Komunitateari eskualda dakion. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan Espainiako Gobernuarekin, Prado Museoko funtsak Nafarroan erakutsi ahal izateko. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jardunaldi instituzional batzuk antola ditzan ezagutzeko nolakoak izan ziren Ezkabako gotorlekuko bizi baldintzak eta ezagupen horretan sakontzeko. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte zerbitzuen zorroan prestazio bermatu gisa sar ditzan gaur egun oinarritzko gizarte zerbitzuek ematen dituzten zerbitzuak. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren lege-prozedura guztiak abian jarri eta ekidin dezan erlijio-erabilera duten Nafarroako eraikin eta ondasun publikoen pribatizazioa, bai eta egoera berean edo antzekoan egon daitekeen ondasun ororena ere. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbideak lipodistrofien kirurgia konpontzailea bere gain hartu eta doan egin dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da agin dezan berehala saltzeko Iberdrolaren kapitalaren ehuneko 1, Sodena enpresa publikoaren jabetzakoa dena. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bideo eta audio grabazioa ezar dezaten Foruzaingoaren polizia-etxeetako zaintza eremu guztietan, eta atxilotutako pertsonak egon daitezkeen toki guztietan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen sina dezan hitzarmen egoki bat, Irunberriko zahar-etxeko hegal berria abian jartzea ahalbidetuko duena. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).
- Adierazpen instituzionala, Onenako zuzendaritzak kaleratutako langileei eta ordezkari sindikalei babesa eta elkartasuna agertzekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (16. or.).
- Adierazpen instituzionala, Iruñean emakume bat bere bikoteak erail izana gaitzestekoa eta biktimaren senide eta lagunekiko elkartasuna adieraztekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (17. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Tuterako Erruki Etxeko eguneko egoitza abenduan irekitzeari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak aldiro agertzen diren eta emakumeentzat guztiz diskriminatzaileak diren lan-eskaintzen iragarkiak ekiditeko hartzen dituen neurriei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (19. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ba al duen asmorik berriz ere aintzat hartzeko, etxebizitza babes-tuaren politikaren baitan, interes-tasak ordaintzeko dirulaguntzak emateko aukera, Ion Erro Armendariz jaunak egina (19. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak lehendakariak babesten ote dituen Jaime Ignacio del Burgo jaunak “M-11” kasua dela-eta eginiko adierazpenak, José Luis Izco Biarge jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Odol Bankuan odol-stockari dagokionez duten aurreikuspen faltari buruzkoa, María Chivite Navascués andreak egina (21. or.).
- Galdera, jakiteko noiztik duen irekita VINSAk Tuterako Plaza Viejako Horno de Coscolín izeneko unitatean eraitsi eta obra egiteko espedientea, Ana Figueras Castellano andreak egina (21. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernua prest ote dagoen Nafarroako Parlamentuari eta parlamentarien lanari dien errespetu eskasa eta gaur egungo harremana onbidean jartzeko, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (22. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (23. or.).
- Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (28. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

1/2008 Foru Legea, urtarrilaren 24koa, 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzkoa.

AKATS ZUZENKETA

2008ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 24ko 1/2008 Foru Legean akatsa atzeman da. Legea 2008ko urtarrilaren 29ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Horrenbestez, ondoko zuzenketa egin da aipatu foru legean:

19. orrialdean, hamahirugarren xedapen gehigarrian, 1. idatz-zatiaren hasieran, hauxe dio:

“– Hezkuntza Departamentuaren menpe dauden irakaskuntza ez-unibertsitarioko irakasleek...”

Honela behar du:

“– Hezkuntza Departamentuaren menpe dauden irakaskuntza ez-unibertsitarioko irakasle funtzionarioek...”

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Nafarroan etxebizitza hutsen arazoa arintzeko hartuko diren neurri zehatzei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkezturiko jabeldura, Nafarroan etxebizitza hutsen arazoa arintzeko hartuko diren neurri zehatzei buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Ioseba Eceolaza jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 181. artikulua eta hurrengo babesean, honako jabeldura hau aurkeztu dio Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Gizartearen arazo nagusietako bat bihurtu da etxebizitza. Horregatik, administrazioak neurri sorta bat ezarri beharra dauka konponbidean jar-

tzeko bai etxebizitzen kopuru urria, bai horien salneurriaren arazoa.

Etxebizitza hutsak merkaturatzeko konpromisoa, horrela, etxebizitzen beharrari aurre egiteko nahitaezko osagarria da. Beraz, etxebizitza huts horiek merkatura ateratzeko mekanismoek eta tresnek, hala nola VINSAk errentan emateko dituen etxeen zorroak, Etxebizitza Departamentuaren babes eta arreta guztia izan behar dute. Eta ez dirudi halako konpromisorik izan denik, 6 urtean VINSAk 250 etxebizitza baizik ez baititu atera.

Bestalde, jakina denez, etxebizitza hutsen gehiegizko maila Iruñeko alde zaharrean nabari da gehiena.

Eta horrek areagotu egiten ditu hala biztanle-hustea nola etxebizitza hutsen ehuneko handiei (% 24) eta etxebizitza zaharkituei loturiko arazoak.

Horregatik, parlamentu-talde honek jabeldura hau aurkeztu dio Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariari, adieraz eta argi dezan zer neurri zehatz hartuko diren etxebizitza hutsen arazoa arintzeko Nafarroan, eta, bereziki, Iruñeko Alde Zaharrean.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua premiatzen da erabaki dezan Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiari eskatzea Pirinioez gaindiko errepidea eraikitzeari uko egiteko erabakia berrazter dezala.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentua premiatzen baita erabaki dezan Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiari eskatzea Pirinioez gaindiko errepidea eraikitzeari uko egiteko erabakia berrazter dezala.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Roberto Jiménez Alli, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, parlamentu-talde horren izenean eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 195., 196. eta 197. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaida dadin, zeinaren bitartez Nafarroako Parlamentuari eskatzen baitzaio erabaki dezala Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiari eskatzea berrazter dezala Pirinioez gaindiko errepidea eraikitzeari uko egiteko erabakia .

Zioen azalpena

Orain egun batzuk jakin genuenez, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak erabaki du

Iruña eta Salies de Béarn arteko hiru erreiko errepidea ez egitea.

Erabaki hori, gure ustez, oso kaltegarria da Pirinioetako haranentzat eta, beraz, Nafarroarentzat.

Bi aldeen arteko bilerek eta negoziaketek zenbait urte iraun dute, eta baliagarriak izan dira nabarmentzeko proiektu hori bertako ingurumena errespetatuz gauzatzea beharrezkoa dela.

Errepide horrek, zalantzarik gabe, beharrezko garapenera irekiko lituzke haran horiek, eta baliagarria izan liteke, gainera, errepide hori egitearen onuradun liratekeen eskualde guztien integrazio sozialerako eta ekonomikorako.

Arrazoi ugariengatik izan liteke zentzuzkoa bi aldeek berriro ere bat egitea batera dituzten interesetan, are gehiago kontuan hartzen badugu zein printzipio eta helburu dituen Europar Batasun berriak, zeinak mugarik ez baitu eta Portugaldik Estoniara bitarte zabaltzen baita.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak erabaki du Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiari eskatzea berrazter dezala Iruña eta Salies de Béarn arteko hiru erreiko errepidea egiteari uko egiteko erabakia , interesik handiena baitu Nafarroarentzat, eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia gonbidatzen du, halaber, Nafarroako Gobernuarekiko elkarrikeri berritara heltzera, azpiegitura hori egiteko aukera emanen duen behin betiko akordioa iristearren.

Iruñean, 2007ko abenduaren 21ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-135 errepidetan egin beharrekoak egin ditzan bide horrek dituen azpiegitura-ara- zoak konponbidean jartzeko.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita N-135 errepidean egin beharrekoak egin ditzan bide horrek dituen azpiegitura-ara-
zoak konponbidean jartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Roberto Jiménez Allik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, parlamentu-talde horren izenean, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195., 196. eta 197. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaida dadin, zeinaren bitartez Nafarroako Gobernua premiatzen baita N-135 errepidean egin beharrekoak egin ditzan bide horrek dituen azpiegitura-ara-
zoak konponbidean jartzeko; jakin dugunez, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak uko egin baitio Frantziako aldean lan horiek egiteari.

Zioen azalpena

Nafarroa eta Pirinio Atlantikoetako Departamendua zenbait urtez aritu dira negoziatzen Espainiaren eta Frantziaren arteko komunikabide

garrantzitsu bat egiteari buruz; asmoa zen, Nafarroa eta Pirinio Atlantikoetako Departamendua lotuz, mugaren alde bietako komunikabideak nabarmen hobetzea, eta merkataritzaren eta turismoaren garapena ahalbideitzea. Hala ere, orain jakin dugunez, frantziarrek ez dute interesik aipatu proiektuarekin aurrera jarraitzeko, eta ez egitea erabaki dute.

Frantziarren erabaki hori oso kaltegarria da Nafarroaren interesentzat, eta, zehazkiago, Pirinioetako haranentzat: zalantzarik gabe, etenda ikus dezakete beren garapena.

Bestalde, denok badakigu Nafarroan azterlanak eta txostenak egin direla, baliagarriak izanen zirenak obra garrantzitsu honen Nafarroako aldeko lanak egiteko.

Horregatik, nahiz eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduak behin betikoz baztertu Pirinioez gairako errepidea, Nafarroan aprobetxatu beharra dauzkagu orain arte egindako lanak, erantzun arrazional eta bidezko bat ematearren Pirinioetako haranetako eskaerei.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du N-135 errepidearen inguruan gauzatu ditzan behar diren proiektuak, ahalbide-
tzeko, horrela, Pirinioetako haranetako garapen orekatu eta iraunkor bat; betiere, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak Pirinioez gairako errepideari uko egitearen iragarpenak sortu duen egoera berriaren ondorioekin bat etorriko den konponbide arrazional baten esparruan.

Iruñean, 2007ko abenduaren 21ean

Eleduna: Roberto Jiménez Allik

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lantalde bat proposa dezan, talde hori behar diren bilerak egiten has dadin Espainiako Gobernuarekin eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin, Tuterako “El Bocal Real” Nafarroako Foru Komunitateari eskualda dakion.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lantalde bat proposa dezan, talde hori behar diren bilerak egiten has dadin Espainiako Gobernuarekin eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin, Tuterako “El Bocal Real” Nafarroako Foru Komunitateari eskualda dakion.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Espainiako Parlamentuko Izquierda Unida-Verds parlamentu-taldeak 2008ko aurrekontuari aurkeztutako zuzenketen artean bazen bat Tuterako “El Bocal Real” izeneko gunea leheneratzeko eta hobetzeko.

Aurreko legegintzaldian, kasuko batzordeak izan zuen aukera gunea hori ikustera joateko, eta, egiaztatu ahal izan genuenez –hala ageri zen Ebroko Konfederazio Hidrografikoko arduradunek eman ziguten karpetan eta azalpenetan ere hori adierazi ziguten–, Konfederazioaren asmoa zen leku hori erabilera publikorako berreskuratzea.

Tuñón senatariak jakin nahi izan du zer plan eta zer asmo dituen Espainiako Gobernuak gunea hori turismorako eta aisialdirako erakargune bihurtzeko Ebro ibaiaren haraneko Nafarroako zatian; Narbona andreak erantzun dio lagapenaren hipotesia baztertu egingen dela orain, Nafarroako Gobernuak ez duelako eskualdaketa eskatu.

Horiek horrela, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean lantalde bat proposa dezan, talde hori behar diren bilerak egiten has dadin Espainiako Gobernuarekin eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin, eta, azkenean, behar diren akordioarekin eta baldintzekin, “El Bocal Real” Nafarroako Foru Komunitateari eskualda dakion.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plan bat egin dezan Tuterako “El Bocal Real” gunea leheneratzeari buruzko proposamen zehatzekin, eta akordio bat egin dezan eragin handiena jasoko duten inguruko udalekin, halako moduz non, denen artean, eta Nafarroako Gobernuarekin batera, egoki irizten dieten ekarpenak egin ahal izan ditzaten.

Iruñean, 2007ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan Espainiako Gobernuarekin, Prado Museoko funtsak Nafarroan erakutsi ahal izateko.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan Espainiako Gobernuarekin, Prado Museoko funtsak Nafarroan erakutsi ahal izateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hama-bietan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Azken urteotan ohikoa da garai jakin bateko pintura multzo bat ikusteko eta miresteko aukera izatea edota autore batzuk obra jakin baten zer bertsio egin dituzten ikusteko eta miresteko

modua izatea. Horrek pinturaren ganako interesa pizten du herritarrengan, erakargarritasun berezi bat sortzen du. Espainiako pinakoteka handiek, berriki, oso maiz erabili dute beren pintura funtsak ezagutzera emateko modu hori, eta, zergatik ez esan, artelan bat begiratze hutsaz haratagoko interesa piztu dute.

Las Edades del Hombre erakusketak ere, eskema tradizionala hautsiz, arte- mugimendu garrantzitsua eragin du; horrela, Espainiako zenbait hiriburutako katedraletan erakusketak eginez, erlijio-pieza multzo aberats eta askotarikoaz gozatzeko bidea eman du.

Orain gutxi, Prado Museoaren handitzea inauguratzeko, museo horrek Espainiako XIX. mendeko margolanak jarri ditu ikusgai; pintura multzo aparteko hori, orain arte, museoaren sotoetan egon da, ez baitzegoen nahikoa leku horiek erakusteko.

Gure ustez, Nafarroan badira gune egokiak interes orokorreko erakusketak egiteko eta horregatik aurkeztu dugu proposamen hau:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du egokiak diren zuzemenak egin ditzan Espainiako Gobernuarekin, biek behar den akordioa lotu eta Nafarroako Foru Komunitatean erakutsi ahal izan daitezkeen Prado Museoak uneotan gordeta dauzkan funtsak. Betiere, jakina, artelan horiek har ditzaketan guneek baldintza ezin hobeak badituzte, segurtasunaren eta kontserbazioaren aldetik.

Iruñean, 2007ko abenduaren 27an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jardunaldi instituzional batzuk antola ditzan ezagutzeko nolakoak izan ziren Ezkabako gotorlekuko bizi baldintzak eta ezagupen horretan sakontzeko.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita jardunaldi instituzional batzuk antola ditzan ezagutzeko nolakoak izan ziren Ezkabako gotorlekuko bizi baldintzak eta ezagupen horretan sakontzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Ezkaba mendiko gotorlekua espetxe anker gisa erabili zen 1934tik aurrera. 1945era arte, 4.797 preso igaro ziren gotorlekuko eraikinetatik, gehi erregistratu ez ziren preso nafarren kopuru zehaztugabe bat –250 edo gehiago–.

Jakina denez, 800 preso inguru fusilatuta edo gaixotasunek jota hil ziren; horrek erakusten du zein egoera nekezean bizi behar zuten presook.

Espetxeratutako gehienak beste autonomia erkidego batzuetakoak ziren, eta Errepublikaren aldekoak izate hutsagatik zeuden kartzelan, ezberdin pentsatzeagatik; hitz batean, gizarte-justiziaren eta askatasunaren kausaren aldeko konpromisoa hartzeagatik, izuzko berrogei urte ezarri zituzten kolpista batzuen aurka.

Gotorlekuko brigadetako egoera jasangaitza zen. Espetxeratuta egotea, berez, gogorra zen, baina, gainera, zorri-izurriak zituzten eta ziegetako hezetasunetik isolatuko zituen ezer ere ez: ez oherik, ez lastairarik ez beste ezer. Argirik gabe,

pilatuta, loguraz, zikin, egunean lau kontaketa jasanez, behar ez zituzten produktuak erostera behartuta, elikadura ezin okerragoa: ez da harritzekoa dozenaka preso espetxeko egoera txarren ondorioz hiltzea.

Horiek horrela, 1938ko maiatzaren 22an, igandearekin, talde txiki batek ihesaldi bat prestatu zuen, kanpoko laguntzarik gabe eta odolusten ari zen Espainian hatzaparrak gero eta estuago ezarritan zituen erregimen baten atzealdean.

795 presok lortu zuten askatasunerantz ihes egitea, baina segituan harrapatu zituzten; 585 berriro ere gotorlekura eraman zituzten, eta 207 inguruko mendietan exekutatu zituzten. Hiru besterik ez ziren Frantziara iritsi, eta ihesaldiaren buru egin zutenetako 14 Iruñeko Gaztelugibelean fusilatu zituzten 1938ko irailaren 18an.

Filmetako ihesaldi honek ezagutua eta gogoratua izatea merezi du, demokrazian dugun sineste sendoa abiapuntu hartuta eta gertakari tragiko horien biktimekiko sentsibiltatea eta elkartasuna gogoan.

Merezi du, beraz, Nafarroako erakunde publikoak ahalegintzea gertakari horiek jendeari ezagutzera ematen. Izan ere gertakari horiek aprobetxatu behar ditugu argi uzteko ezen, gertatu zena gogoan, gerra zibil anker batek eragindako biktima ahaztuen memoriaren aldeko apustua egin behar dugula, gerrak Nafarroan 3.200 pertsona baino gehiago eraman baitzituen aurretik.

Hori dela eta, honako hau erabakitzea proposatzen dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jardunaldi instituzional batzuk antola ditzan ezagutzeko nolakoak izan ziren gotorlekuko bizi baldintzak eta zenbaterainokoa preso errepublikarren aurkako errepresioa, eta ezagupen horietan sakontzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du joan dadin presondegi horretan espetxeratuta egon ziren pertsona guztiei zenbait urtetik hona Txinparta kultur elkarteak antolatuta eskaintzen zaien omenaldira, eta ihes egin zutenen omenez jarritako monolitoan lore eskaintza egin dezan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte zerbitzuen zorroan prestazio bermatu gisa sar ditzan gaur egun oinarriko gizarte zerbitzuek ematen dituzten zerbitzuak.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gizarte zerbitzuen zorroan prestazio bermatu gisa sar ditzan gaur egun oinarriko gizarte zerbitzuek ematen dituzten zerbitzuak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Gizarte zerbitzuen zorroa da Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legearen eta gizarte-laguntzaren funtsezko eta oinarriko tresna. Horregatik, zorro horrek gauza izan behar du administrazio publikoaren gizarte-konpromiso berezia behar duten sektore guztien laguntza-eskaerei aurre egiteko.

Gure taldearentzat, gizarte-zerbitzuak nahitaezko zutabea dira; horregatik, ez zaigu iruditzen prestazio bermatuak eta ez bermatuak bereizi behar direnik, eta are gutxiago administrazio publikoak gaur egun eskaintzen ari diren prestazioak badira. Horrela, garrantzitsua iruditzen zaigu eskubide horien aitortzea gainerako sistemetako eskubideekin pareka dadin, hau da, osasun- edo hezkuntza-sistemetako eskubideekin.

Azken urteotan ikusi dugunez, halako dinamika pribatizatzaile bat gertatu da, eta menpekotasuna

rekin zerikusia duten zerbitzuak ukitu ditu gainera. Horregatik, justifikaezina iruditzen zaigu eskubide aitortuak eta finkatuak laguntza ekonomikoekin ordeztzea, etxez etxeko laguntzari dagokionez bereziki.

Zerbitzuen zorroak aurrerapausoa sinbolizatu behar du gizarte-babesean, eta, horregatik, gaur egun eskaintzen diren programetatik bakar batek ere ez du izan behar "ez bermatua".

Laguntza hutsaren eta paternalismoaren faseak gaindituko dituzten politika aktiboak egin behar dira, eta arauak ezarri behar dira herritarren eskubide subjektiboak finkatzeko eta herritarrek prestazioak eta zerbitzuak eskura izateko; horrela, arautu gabeko elementuak desagerrarazi egin behar dira eta herritarrei aukera eman behar zaie administrazioei prestazioak eta zerbitzuak exijitzeko.

Beraz, gure ustez, arau eza gainditzeak esan nahi du beharrei buruzko plangintza egitea, ukitutako pertsonak aintzat hartuz, programa berriak sortzea eta behar- eta bazterkeria-egoerak konpontzera edo hobetzera bideratutako esku-hartzeak oparagoak egitea.

Horrela, gizarte-arloan daukagunari eusteko eta gizartearen eskaera berriei erantzuteko grina behar da.

Hori dela eta, honako hau erabakitzea proposatzen dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gizarte-zerbitzuen zorroan prestazio bermatu gisa sar ditzan gaur egun oinarriko gizarte-zerbitzuek ematen dituzten zerbitzuak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gizarte-zerbitzuen zorroan laguntza anbulatorioko zerbitzuaren onuradun gisa sar daitezen beren kasa moldatzeko zailtasunak dituzten pertsonak, zailtasun horren maila gorabehera.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren lege-prozedura guztiak abian jarri eta ekidin dezan erlijio-erabilera duten Nafarroako eraikin eta ondasun publikoen pribatizazioa, bai eta egoera berean edo antzekoan egon daitekeen ondasun ororena ere.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar diren lege-prozedura guztiak abian jarri eta ekidin dezan erlijio-erabilera duten Nafarroako eraikin eta ondasun publikoen pribatizazioa, bai eta egoera berean edo antzekoan egon daitekeen ondasun ororena ere.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak jakin du Eliza Katolikoak Nafarroako udal askotako eraikin erlijiosoak Jabetza Erregistroan inskribatu dituela, Hipoteka Legeko 206. eta 207. artikulua oinarri. Azken urteotan ehunka parrokia eta baseliza inskribatu dira (1998an Hipoteka Erregelamenduko 5. artikulua, kultu-lekuak erregistratu ezina ezartzen zuena, indarrak gabe utzi zelako), bai eta parrokiatxeak, atalondoak, hilerriak eta herriek eraiki edo eskuratu eta zaindutako beste ondasun batzuk, zeinak orain arte inskribatu gabe baitzeuden.

Hipoteka Legeko 206. artikulua dioenez, "Estatuak, probintziak, udalerriek eta estatuaren

egitura politikoa osatzen duten zuzenbide publiko-korporazioek edo zerbitzu antolatuek, zein Eliza Katolikoaren korporazioek, jabariari buruzko titulu idatzirik izan gabe inskriba dezakete eurei dagozkien ondasun higiezin jabaria; horretarako, ondasun horien ardura duen funtzionarioak luzatutako ziurtagiria aurkeztu beharko da, non adieraziko baita zein den eskuraketa-titulua edo nola eskuratu ziren ondasun higiezin horiek."

Eliza Katolikoa, salbuespenezko bide horri heldu eta, huskeria baten truke, udalena diren hainbat ondasun ari da bere izenean inskribatzen; prozedura horrek ez du inongo publizitaterik eta Eliza, horrela, herritarrek eta beren ordezkari publikoek jakin gabe, "pribatizatzen" ari da ondasun publiko horiek.

Hipoteka Legearen 206. artikulua Elizari pibilegioa ematen dio (horrela diote epai batzuek) elizbarrutiak berak emandako ziurtagiriarekin ondasunak Erregistroan inskribatzeko.

Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren zenbait epairen ondotik, Konstituzioaren kontrakoa izatearen susmopean dago artikulua hori, eta horretarako oinarria logikoa da: Hipoteka Legea 1946an onetsi zen, estatu konfesional frankistaren garai bete-betean. Horregatik eman zitzaizkion Elizari ondasunak inskribatzeko eman zitzaizkion abantaila ederrak. 1978ko Espainiako Konstituzioan, Estatua ez zela konfesionala ezarri zen, eta, beraz, oso zalantzarria da Hipoteka Legeak elizbarrutiari funtzionario publikoaren eginkizunak esleitzea ondasunak bere izenean inskribatzeari dagokionez.

Eraikin horiek, oro har, herriek eraiki eta jantzi zituzten; hori jakina eta agerikoa da, hala erakusten baitute udal artxiboek eta herriaren memoriak; eta herriak udalen eta kontzejuen bidez arduratzen ziren eraikin horietaz. Gaur ere, etengabeak dira eraikin horietako askotan egiten diren obrak, funts publikoen kargura gehienak. Dakigunez, inongo udalek ez die akordio bidez uko egin mendeetan pilatutako ondare horri buruzko eskubidei.

Tradizioaz gain, ondasun horiek jabetza publikokotzat jotzeak badu lege-aurrekaririk: Sinesme-

nei eta kongregazioei buruzko 1933ko Legeak aitortzen zuen, 11. artikuluan, era guztietako tenpluak eta horien ondoko eraikinak, errektore-etxeak, etab. jabetza publikokoak zirela. Eta halakotzat jotzen ziren, era berean, altzariak, apaingarriak, irudiak... Eta 12. artikuluan esaten zuen aurreko guztiak kultu katolikoko erlijio-erabilerarako izanen zirela aurrerantzean, eta horretarako jarraituko zutela Eliza katolikoaren esku, zuten izaeraren eta erabileraren arabera Elizak zaindu, administra eta erabil zitzen. Elizak ezin izanen zuen horiei buruz xedatu eta, zertarako ziren, horretarako beste ezertarako ezin izanen zituen erabili.

Jabetza publikokoa dena eta izan dena, Jabetza Erregistroan inskribatuta, jabetza pribatukoa bihurtzen da. Eliza Katolikoa da jabetzaren titularrak izanen dena, eta ez parrokia, halako moduz non

ondasun horiek beste helburu batzuetarako erabilteza xeda baitezake (saldu egin ditzake, errentan eman, turismo-leku gisa ustiatu, etab.), eta gerta daiteke helburu horiek zerikusirik ez izatea ondare hori eraiki edo eskuratu eta zaindu duten herrieta-ko beharrekin, edo behar horien aurkakoa izatea.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren lege-prozedurak abian jar ditzan eta ekidin dezan erlijio-erabilera duten Nafarroako eraikin eta ondasun publikoen pribatizazioa, bai eta egoera berean edo antzekoan egon daitekeen ondasun oreana ere.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 8an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbideak lipodistrofien kirurgia konpontzailea bere gain hartu eta doan egin dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Osasunbideak lipodistrofien kirurgia konpontzailea bere gain hartu eta doan egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa

aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioak:

GIB-IHESari buruz ari garenean, XX. mendeko pandemiarik handienari buruz ari gara, eta gaixotasun horri osasunaren ikuspuntutik eta ikuspuntu sozialetik egin behar zaio aurre. Osasunaren ikuspuntutik, begi bistakoa da aldatu egin dela gaixotasun horri buruzko iritzia; orain, gaixotasun kronikotzat jotzen da eta, tratamendu medikoek aurrera egitearekin, bizi-itxaropen handiagoa dute gaixoek. Hori dela eta, medikazioak dituen eraginen ondorioz eta bizi-itxaropena handiagoa delako, aldatu egin dira gaixo horiei eman beharreko osasun-prestazioak.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, eztabaidatu eta bozka dadin:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasunbideak lipodistrofien kirurgia konpontzailea doan egin dezan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da agin dezan berehala saltzeko Iberdrolaren kapitalaren ehuneko 1, Sodena enpresa publikoaren jabetzakoa dena.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita agin dezan berehala saltzeko Iberdrolaren kapitalaren ehuneko 1, Sodena enpresa publikoaren jabetzakoa dena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

2005eko otsailaren 10ean, Sodena enpresa publikoak, Nafarroako Gobernuak Ekonomia kontseilari eta lehendakariordeak eskatuta, Iberdrola enpresa elektrikoaren 9.045.492 akzio erosi zituen, % 1 alegia, 173,5 milioi eurotan -diru horren zatirik handiena EHN enpresa publikoaren salmentatik atera zen-.

Comptos Ganberak eragiketa horri buruzko fiskalizazio txostena egin du, eta hartan dio ezen Sodenak Iberdrolaren akzio horiek erosi zituen unean hartu gabe zeudela Sodena sortu zuen foru legeari eta haren estatutuei jarraikiz hartu beharrekoak ziren zenbait erabaki.

Horra hartu beharrekoak ziren eta hartu ez ziren erabakiak:

– Nafarroako Gobernuak eragiketa baimentzeko erabakia.

– Sodenako inbertsioen batzordeak eragiketa onesteko akordioa.

– Sodenako Administrazio Kontseiluak eragiketa onesteko akordioa.

Izan ere, Iberdrolaren % 1 funts publikoen 173 milioi eurotan erosteko eragiketa justifikatu eta abiarazten duen espediente osoa ondokora mugatzen da: Nafarroako Gobernuak Ekonomia kontseilariak Sodenako lehendakariari (Industria kontseilari ere bazena) 2005eko otsailaren 8an igorri zion gutun bat, zeinean eragiketa estrategikotzat jo eta hura egitera premiatzen baitzuen.

Diru publikoaren 173 milioi euroko gastua dakarren eragiketa baten justifikazio osoa orri beteko gutun batean laburbiltzen da. Ez dago inolako ekonomia-, finantza- nahiz enpresa-azterlanik eragiketa hori Nafarroaren interes orokorrerakoa dela dioenik eta argudiatzen duenik.

Halatan, ozen esan dezakegu eragiketa hori isilpean eta opakutasunez egin zela, foru erkidegoaren interes orokorra justifikatu eta azaldu gabe, eta zergatik egin zen eta noren onurako den jakin gabe.

Egia bakarra da 3 urte hauetan funts publiko handi horiek ez direla bideratu herritarren benetako beharrianak asetzerak eta geldi-geldirik daudela Iberdrolaren kapitalean.

Burtsako baloreen egungo joera, berriz, orokorrean nabarmen behera egiteko denez, arriskua dago eragiketa horretan atzera egiten denean ez ote den nafarren poltsikoetarako garesti aterako.

Hori dela-eta, IUN-NEB foru parlamentarien elkarteak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du agin dezan berehala saltzeko Iberdrolaren kapitalaren ehuneko 1, Sodena enpresa publikoaren jabetzakoa dena.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du salmenta horretatik heldu diren funtsak politika publiko arruntak finantzatzera bidera ditzan. Alegia, gastu eta inbertsio publikoei buruzko politikak herritarren arazo errealak konpontzera bidera daitezten.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 18an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bideo eta audio grabazioa ezar dezaten Foruzaingoaren polizia-etxeetako zaintza eremu guztietan, eta atxilotutako pertsonak egon daitezkeen toki guztietan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bideo eta audio grabazioa ezar dezaten Foruzaingoaren polizia-etxeetako zaintza eremu guztietan, eta atxilotutako pertsonak egon daitezkeen toki guztietan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin argitzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Amnesty Internationalek, beste GKE nazional eta nazioartekoekin batera eta Nazio Batuen Erakundeko eta Europako Kontseiluko zenbait organorekin batera, urteak daramatza kezka agertzen Espainian legea betearazteko ardura duten funtzionarioek eginiko torturengatik eta emaniko beste tratu anker, gizagabe edo laidogarriengatik.

Nazioarteko akordio eta itun ugarik gomendatzen dute tratu txarrei aurre hartzeko neurriak hartzea. Espainia, gainera, partaide da Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean, Torturaren eta beste tratu edo zigor anker, gizagabe edo laidogarraren aurkako Nazio Batuen Konbentzioan (Torturaren aurkako Konbentzioa) eta Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Babeserako Europako Hitzarmenean (Giza Eskubideen Europako Hitzarmena).

Horrela, Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 3. artikulua Espainiako agintariak behartzen ditu bermatzera inork ez duela torturarik edo bestelako tratu txarrik izanen. Artikulu hori oinarri, gure ustez, Nafarroan zenbait neurri hartu behar dira, legegintzakoak, judizialak eta administratiboak, gerta daitezkeen tratu txarrik ekiditeko.

Gainera, ikuspuntu administratibotik arauz kanpoko egoeran dauden pertsonen kasuan, administrazio publiko guztien babesa nahitaezkoa bihurtzen da talde hori ez dadin benetan babes gabe gelditu.

Azpimarratu beharra dago, hain zuzen ere, giza eskubideen aldeko zenbait erakundek onartzen dutela poliziek batzuetan zailtasunak izaten dituztela beren betebeharra betetzeko, hau da, arriskutsuak izan daitezkeen pertsonen aurka ari-zen direnean edo horiek indarkeria erabil dezaketenean, bai eta poliziok arriskuak izaten dituztela ere.

Horregatik, gure ustez, ikerketak, protokoloak edo bestelako elementuak, esate baterako bideo-kamarek eta audio sistemak, baliagarriak dira balizko tratu txarren arduradunek beren ekintzen kontuak eman ditzaten, eta baliagarriak dira, gainera, tratu txarren ustezko biktimen babeserako eta salaketa faltsuen biktima izan daitezkeen polizientzat.

Arreta mediko ona ere ziurtatu beharra dago; bermatzailea eta argia, atxilotutako pertsonen kasuan. Horregatik, baliagarria eta interes oso handikoa da Foruzaingoak tresna bat izatea, jardute-protokolo bat, pertsona bat atxilotzen duenerako, atxilotetak irauten duen bitartean eta haren amaieran zer egin behar den jasoko duena.

Proposamenaren helburua ez da inongo kolektibori epaiketa sumarioa egitea; aitzitik, nahi duguna da susmoak eta juzguak gainditzeko balioko duten mekanismoak jartzea gardentasuna eskatzen duten gaitan.

Hori dela eta, honako hau erabakitzea proposatzen dugu:

1. Nafarroako Gobernua premiatzea bideo eta audio grabazioa ezar dezaten Foruzaingoaren polizia-etxeetako zaintza eremu guztietan eta atxilotu-

tako pertsonak egon daitezkeen toki guztietan, halako moduz non atxilotua grabatu eginen baita atxilotua dagoen epe guztian; ilungunerik ez egoteko modua eginen da, salbu eta hori bere intimitate-eskubidearen aurkakoa bada edo abokatuarekin edo sendagilearekin pribatuan egoteko eskubidearen aurkakoa. Grabazio horiek leku seguruan gorde eta zaindu behar dira arrazoizko epe batean, epaileek ikuskatzea eskatzen badute eskuragarri egon daitezten.

2. Nafarroako Gobernua premiatzea protokolo bat ezar dezan, sei hilabeteko epean, atxilotuentzako laguntza medikoari buruz, zehazteko zer egin behar den atxilotu eta berehala, atxiloketak irauten duen bitartean eta, azkenik, atxiloketa amaitu aurretik.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen sina dezan hitzarmen egoki bat, Irunberriko zahar-etxeko hegal berria abian jartzea ahalbidetuko duena.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehenbailehen sina dezan hitzarmen egoki bat, Irunberriko zahar-etxeko hegal berria abian jartzea ahalbidetuko duena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Hala Nafarroa Bairentzat nola gizartearentzat, adinekoentzako laguntzak erabateko lehentasuna du. Izan ere, familia motak aldatu egin dira eta bizi-itzaropena hobetu egin da, eta, horren ondorioz, sektore horri zuzendutako politikek gero eta garrantzi handiagoa dute gure erkidegoan.

Mozio hau aurkeztuta hobetu egin nahi dugu, gure esparrutik, menpekotasun-egoeran bizi diren pertsonen autonomia-maila, bizi-kalitatea eta ematen zaien arreta, bai eta familiak arindu ere. Adinekoek eskubidea dute laguntza modu integratuean eta dituzten beharren arabera jasotzeko, eta eskubide horrek unibertetsala izan behar luke.

Irunberriko zahar-etxeak 89 leku ditu; 2002an handitu egin zen, baina handitutako gunehorretan, gaur arte, ez da egoiliarrik. Bada garaia, beraz, orain sei urte hornitutako eta inauguratutako gunehori abian jartzeko.

Horregatik, gure ustez, Irunberriko zahar-etxearen handitutako zatiak (zahar-etxea Nafarroako Gobernuarena da eta Irunberriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak kudeatzen du; mankomunitateak Irunberri, Urraulbeiti, Urraulgoiti, Erromantzatua, Galoze eta Itzaltzu herriak hartzen ditu, eta Nabaskoze eta Ibiltzieta kontzejuak)– beste hitzarmen bat behar du, gunehorren kudeaketa publikoa eta lasterra ahalbidetuko duena.

Hori guztia dela-eta, hau erabakitzea proposatzen dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen sina dezan hitzarmen egoki bat Irunberriko zahar-etxeko hegal berria abian jartzea ahalbidetuko duena. Hitzarmen horrek San Isidro zahar-etxearen bide-ragarritasun eta oreka ekonomikoa jaso behar ditu; zahar-etxea kudeaketa publikokoa da.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Irunberriko San Isidro

zahar-etxearen hegal berria ere zahar-etxeak duen kudeaketa publikoko sisteman sar dadin.

3. Nafarroako Parlamentuak Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua premia-tzen du beste hitzarmen bat sina dezan, Irunberri-

ko zahar-etxea eta handitutako zatia ekonomikoki optimizatu eta bideragarri egin ahal izateko.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Adierazpen instituzionala, Onenako zuzendaritzak kaleratutako langileei eta ordezkari sindikalei babesa eta elkartasuna agertzekoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak erabateko elkartasuna eta babesa agertzen die Onenako zuzendaritzak kaleratutako langile eta ordezkari sindikalei.

2. Nafarroako Parlamentuak langileen funtsezko eskubide eta printzipioen urraketa salatzen du; besteak beste, huelga eskubidearen eta askata-

sun sindikalaren urraketa, zeinak Konstituzioan, Langileen Estatutuan eta Askatasun sindikalari buruzko Lege Organikoan aldarrikatzen baitira.

3. Nafarroako Parlamentuak opa du elkarrizketaren eta negoziaketaren bidez konpon dadila arazoa".

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala, Iruñean emakume bat bere bikoteak erail izana gaitzestekoa eta biktimaren senide eta lagunekiko elkartasuna adieraztekoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak emakume baten erailketa, bere bikotekideak eragina, gaitzesten du, eta biktimaren senide eta lagunekiko elkartasuna adierazten du.

2. Nafarroako Parlamentuak berriro adierazten du generoko indarkeriaren gaitzespen erabatekoa, eta herritar guztiei dei egiten die indarkeria mota

horri aurre egin diezaioten, arduraz eta biktimekiko elkartasuna oinarri, emakumeen aurkako eraso oro gure gizartetik baztertzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak botere publikoak premiatzen ditu azpimarra dezaten derrigorrezkoa dela indarkeria sexistaren aurkako neurriak gauzatzea beharrezkoak diren baliabideak jarriz, gizarte osoari eragiten dion arazo hau gainditzeko.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Tuterako Erruki Etxeko eguneko egoitza abenduan irekitzeari buruzkoa.**ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Tuterako Erruki Etxeko eguneko egoitza abenduan irekitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak Oso Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Legebiltzar honetan behin baino gehiagotan jorratu dugu Tuterako Erruki Etxeko eguneko zentroa oportetan ixteak eragindako arazoa.

Legebiltzar honek aho batez onetsi zuen iragan azaroan mozio bat, zeinaren bidez Gobernuak premiatu zen aipatu eguneko zentroa zabalik egon zedin abenduan, foru erkidegoko beste edozein zentro soziosanitariok bete beharreko baldintza beretan hain zuzen ere.

Joan da abendua eta eguneko zentroa, ordura arte bezala, itxi egin da, eta hortaz ez ditu senideak ase eta Gobernuak ez ditu bete legebiltzar honek hartutako erabakiak.

Horra galdera:

Legebiltzarren Osoko Bilkurak aho batez onetsi zuen Erruki Etxeko eguneko zentroa zabalik egon zedin abenduan. Zergatik ez da egin beharrekoa egin, aho batez erabakitakoa Gobernuak bete zezan?

Iruñean, 2007ko abenduaren 27an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak aldiro agertzen diren eta emakumeentzat guztiz diskriminatzaileak diren lan-eskaintzen iragarkiak ekiditeko hartzen dituen neurriei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak aldiro agertzen diren eta emakumeentzat guztiz diskriminatzaileak diren lan-eskaintzen iragarkiak ekiditeko hartzen dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragarki diskriminatzaileei buruzko galdera

Aldiro agertzen dira lan-eskaintzen iragarkiak, emakumeekin guztiz diskriminatzaileak direnak. Zer neurri hartzen ditu Nafarroako Berdintasunerako Institutuak halako kasuak ekiditeko?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ba al duen asmorik berriz ere aintzat hartzeko, etxebizitza babestuaren politikaren baitan, interes-tasak ordaintzeko dirulaguntzak emateko aukera.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ba al duen asmorik berriz ere aintzat hartzeko, etxebizitza babestuaren politikaren baitan, interes-tasak ordaintzeko dirulaguntzak emateko aukera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko eledun Ion Erro Armendarizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Inflazioaren nahiz diruaren prezioaren igoera handia eragin nabarmena izaten hasia da familien ekonomietan, bereziki langileen eta gazteen ekonomietan.

Euriborra % 4,75era iritsi da gaur (orain dela urtebete % 4koa zen, eta ia % 2ra jaistera iritsi zen), eta aurreikusten denez, Europako Banku Zentralak igoera gehiago ezarriko ditu hurrengo hilabeteetan.

IUN-NEBren ustez, aintzat hartu beharra dago interesak ordaintzeko dirulaguntzak ematearen aukera; izan ere, 80ko eta 90eko hasierako urteetan Nafarroan etxebizitzari buruzko politikan baliatu zen neurri hori oso eragingarria izan zen milaka herritarrek etxebizitza bat eskuratu ahal izan zezaten.

Hurrengo hileotan munta handiko eztabaidak eginen dira Nafarroako Parlamentuan etxebizitzari buruzko politikaren inguruan. Esate baterako, etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortze-ari buruzko foru lege proposamena eztabaidatuko da, eta litekeena da Nafarroako Gobernuak etxebizitza plana igortzea Legebiltzarrera.

Gure ustez, eztabaida horietan egungo bilakera ekonomikoa agerian uzten ari den arazoak

konpontzeko proposamenak jaso behar dira –arazo horietako bat, zalantzarik gabe, interes-tasen igoera handia da–. Horregatik uste dugu, hain zuzen ere, iritsi dela unea berriz ere baliatze-ko etxebizitza politikaren parte hori, iraganean hain eragingarri eta baliagarria izan zena eta orain ere izan behar duena.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dugu:

Asmorik al du Nafarroako Gobernuak berriz ere aintzat hartzeko, etxebizitza politikaren barruan, interes-tasak ordaintzeko dirulaguntzak emateko aukera?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuko lehendakariak babesten ote dituen Jaime Ignacio del Burgo jaunak “M-11” kasua dela-eta eginiko adierazpenak.

JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Luis Izco Biarge jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuko lehendakariak babesten ote dituen Jaime Ignacio del Burgo jaunak “M-11” kasua dela-eta eginiko adierazpenak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-ari argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarrita-

koaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak urtarrilaren 21 eta 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Galderaren testua

Ikusita UPNko diputatu Jaime Ignacio Del Burgo jaunak martxoaren 11ko atentatuei buruz egindako azken adierazpenak -iragan urtarrilaren 9ko “Abc” egunkarian argitaratuak- eta kontuan izanik Nafarroako diputatu hori PPren zuzendari-tzaren interesen zerbitzuan parte hartzen ari dela M-11 izenez ezagutzen den kasuari buruzko ikerketa batzordearen lana nahaste aldera alderdi horrek abiatutako kanpainan, egoki da Nafarroako Gobernuko Lehendakariari ondoko galdera egitea:

Nafarroako Gobernuko Lehendakaria bat dator, babesa ematen die ala babesa kentzen die Jaime Ignacio del Burgo jaunak egin dituen azken adierazpen horiei?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

Galdera, Nafarroako Odol Bankuan odol-stockari dagokionez duten aurreikuspen faltari buruzkoa.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Odol Bankuan odol-stockari dagokionez duten aurreikuspen faltari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan

handiko galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Parlamentari honek jakin ahal izan duenez, Nafarroako Odol Bankua Rh negatiboko hematien transfusioak egin ezinik dabil, eta hori dela eta, RhD negatiboko gaixoen ebakuntza programatuak heldu den astelehenera arte, hilaren 21era arte, bertan behera uztea iradoki da. Orobat jakin dut ezen Nafarroako Ospitalean eta Klinika Unibertsitarioan asteak daramatzatela Rh negatiboa duten 55 urtetik gorako gizon eta emakumeei Rh positiboa transfunditzen.

Egoera hori ikusirik, hau da galdera:

Nolatan gertatu ahal izan da hain aurreikuspen falta larria odol-stockari dagokionez Nafarroako Odol Bankuan?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, jakiteko noiztik duen irekita VINSAk Tuterako Plaza Viejako Horno de Coscolín izeneko unitatean eraitsi eta obra egiteko espedientea.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko noiztik duen irekita VINSAk Tuterako Plaza Viejako Horno de Coscolín izeneko unitatean eraitsi eta obra egiteko espedientea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Noiztik du irekita Vinsak Tuterako Plaza Viejako Horno de Coscolín izeneko unitatean eraitsi eta obra egiteko espedientea?

Nafarroako Gobernuak noiz egiteko asmoa du hirigintza jarduketa hori Vinsaren bitartez?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 18an

Eleduna: Ana Figueras Castellano

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernua prest ote dagoen Nafarroako Parlamentuari eta parlamentarien lanari dien errespetu eskasa eta gaur egungo harremana onbidean jartzeko.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernua prest ote dagoen Nafarroako Parlamentuari eta parlamentarien lanari dien errespetu eskasa eta gaur egungo harremana onbidean jartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Maiorga Ramírez foru parlamentari jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Parlamentu-jarduera gauzatzean funtsezkoa Nafarroako Gobernuaren jarrera parlamentariet

eginiko galderei eta informazio eskaerei erantzutean.

Jakina denez, oposizioko taldeen funtsezko zeregina da Nafarroako Gobernuaren jarduna kontrolatzera bideratutako proposamenak eta ekintzak egitea; zeregin hori, zalantzarik gabe, erakunde guztien funtzionamendu zuzenerako, gardenerako eta egokirako da lagungarria.

Hala ere, zenbait parlamentarik eginiko galderak direla-eta Nafarroako Gobernuari jokaera mukerra antzematen diogu; izan ere, sarri askotan, edo ez die eginiko galderei erantzuten, edo modu erabat alderdikoian erantzuten die, edo, bestela, parlamentu-jardueraren seriotasuna, zorroztasuna eta Nafarroako Gobernuak parlamentu-jarduerari zor dion errespetua murrizten duten argudioak erabiliz, eskatutako informazioa ukatzen du.

Horregatik, honako galdera aurkeztu diot Nafarroako Gobernuari, jakiteko prest ote dagoen Nafarroako Parlamentuari eta parlamentariei dien errespetu eskasa eta gaur egungo harremana onbidean jartzeko.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 10ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Lizarrako Udalari buruz egin-dako fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2007ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (23. or.).
- II. Helburua (24. or.).
- III. Norainokoa (24. or.).
- IV. Iritzia (25. or.).
 - IV.1. 2005eko aurrekontu bateratuaren likidazioari dagokionez (25. or.).
 - IV.2. 2005eko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena (25. or.).
 - IV.3. Legezketasuna (25. or.).

IV.4. Udalaren finantza-egoera 2005eko abenduaren 31n (25. or.).

IV.5. Informazio osagarria eta azalpen oharak (25. or.).

IV.6. Comptos Ganberaren gomendioen jarraipena (25. or.).

IV.7. Laburpena eta ondorio nagusia (25. or.).

V. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (26. or.).

V.1. Administrazio-kontratazioa (26. or.).

V.2. Kudeaketari buruzko bestelako gomendioak (27. or.).

Eranskina. 2005eko finantzen egoera-orri bateratuen oroitidazkia.

Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko webgunean:
www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Lizarrako Udalak 13.949 biztanle ditu, eta hauek dira bertako zifra adierazgarrienak 2005eko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileria
Udala	12.373.161	11.932.012	162
Musika Patronatua	283.997	282.364	14
Bateratzearen doitzeak	(133.222)	(133.222)	
Guztira	12.523.936	12.081.154	176

(eurotan)

Jurramendiko Mankomunitatearen barruan da Udala, eta haren bidez eskaintzen ditu ur horniketara eta zabor-bilketa zerbitzuak. Lizarraldeko Turismo Partzuergoan eta L'Urederra elkartean ere parte hartzen du.

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Lizarrako Udalak eta haren erakunde autonomoak 2004ko ekitaldian izan duten kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa eta gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen betetzea fiskalizatu ditugu.

Fiskalizaturiko toki entitateari aplikatzekoa zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: arestian aipatutako legeek eta Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuak, hirigintza-kudeaketa eta administrazio-kontratazioa arautzen duen araudiak eta Nafarroako toki entitateari aplikatzekoa zaien gainontzeko araudiak.

Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzgure iritzia adieraztea:

a) Lizarrako Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoaren 2005eko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2005eko abenduaren 31ko ondare-egoera agertzea, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko eta finantzarioa legez-kotasun printzipioari egokitzen ote zaion.

d) Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2005eko abenduaren 31ko finantza-egoera.

e) Lizarrako Udalaren finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oha-

rretan ageri diren datuen eta iruzkinen arrazoizkotasuna eta koherentzia.

f) Azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2004ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganberak eman zituen gomendioak noraino bete diren.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak, bere jarduketa programarekin bat, Lizarrako Udalaren (aurrerantzean, "udala") eta haren erakunde autonomoaren "Julián Romano" Musika Patronatua- finantzen egoera-orri bateratuen fiskalizazioa egin du; egoera-orri horietan sarturik daude 2005eko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontuen emaitza bateratua eta diruzaintza-gerakin bateratua, eta 2005eko abenduaren 31ko egoeraren balantze bateratua, bai eta finantzen egoera-orri bateratu horien informazio osagarria eta azalpen oharrak ere, 2005eko ekitaldikoak.

Udalak Kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka, eta kontabilitatearen egoera-orri bateratuak dauzka, udalari eta haren erakunde autonomoari dagozkienak.

Eginiko lanak aurrekontuaren betetzearen kapitulu ekonomikoen berrikuspena (aurrekontuko aldaketak eta aurreikuspenen betetze-maila azertu dira) eta ondare-masen berrikuspena (antolaketak, kontabilitate eta barne-kontrolko gaiak aztertu dira) izan ditu ardatz nagusi.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako fiskalizazio printzipioei eta arauari jarraituz eta aurreko urteetako lanetan agerian utzi diren baldintzen eta arazoaren arabera beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz.

Txostenean daude udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoaren antolamendu, barnekontrol, eraginkortasun eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu udaleko eta haren erakunde autonomoko langileei.

IV. IRITZIA

Buruturiko fiskalizazioaren barruan, Lizarrako Udalaren eta haren erakunde autonomoaren finantzen egoera-orri bateratuak, 2005eko abenduaren 31n amaituriko ekitaldikoak, aztertu ditugu. Egoera-orri horiek udalaren ardurapean egin dira.

Eginiko azterketan oinarrituz, hona gure iritzia:

IV.1. 2005eko AURREKONTU BATERATUA-REN LIKIDAZIOARI DAGOKIONEZ

Erantsi dugun 2005eko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orriak behar bezala agertzen du, garrantzizkoak diren alderdi guztiei dagokienez, eginiko jarduera eta 2005eko abenduaren 31ko aurrekontu-egoera.

IV.2. 2005eko ABENDUAREN 31ko ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

Erantsitako 2005eko abenduaren 31ko egoerabalantze bateratuak behar bezala agertzen du udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoaren finantza- eta ondare-egoera bateratua, salbu eta ondasunen (ibilgetua) inbentarioaren kasuan; izan ere, 1995ekoa da eta gaurkotu gabe dago.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, Udalaren eta haren erakunde autonomoaren jarduera ekonomiko-finantzariora legezko-tasun-printzipioari jarraituz egiten da.

IV.4. UDALAREN FINANTZA-EGOERA 2005eko ABENDUAREN 31n

Hasierako aurrekontu bateratua, 2005ean, 23.151.248 eurokoa da, eta behin betikoa, 25.979.241 eurokoa. Gastuen betetze-maila ehuneko 46koa du, eta dirusarrerena, ehuneko 48koa.

Inbertsio errealean 6. kapituluak betetze maila baxua izan du; izan ere, proiektu jakin batzuk berandu hasi dira (lur azpiko aparlekuak eta Gaztediaren Etxea), eta beste batzuk 2006an esleitu dira edota atzeratu egin dira (Kirol-komplexua, AR 3 eta UE 10.1 eremuetako urbanizazioa, eskolaitailerrera nabea, udatzaingoarentzako nabea, besteak beste). Horren ondorioz dirusarrerak txikiagoak dira horrekin lotutako kapituluetan, kapital transferentzietan, inbertsio errealean besterentzean eta finantza-pasiboan aldaketan, kasu.

Dirusarreretan, zerga zuzenek eta zeharkakoek ekitaldiko dirusarreraren ehuneko 29 egiten dute. Udalaren baliabideen ehuneko 45 transferentzietatik dator eta gainerako ehuneko 26a dirusarreraren gainerako kapituluak dagokie.

Ekitaldia ixtean aurrekontuko emaitza bateratua 372.622 eurokoa zen. 2005eko abenduaren 31n, kreditu-erakundeekiko zorra 2.149.475 eurokoa zen.

Diruzaintza-gerakin bateratua 1.437.038 eurokoa da, eta aurrezki garbia, ekitaldia ixtean, ehuneko 10ekoa.

IV.5. INFORMAZIO OSAGARRIA ETA AZALPEN OHARRAK

Finantzen egoera-orri bateratuaren informazio osagarrian eta azalpen oharretan beharrezkoa den informazio aski dago, oro har, egoera-orri haiek ongi interpretatu eta ulertzeko, udaleko oroit-idazkiak agertzen duenez. Nolanahi ere, informazio horren edukia osatu beharko litzateke, ikusirik:

- Aurrekontuaren betetzeari buruzko oharra udalari buruzkoak direla soilik.
- Ez dagoela kontratazio arloko inolako informaziorik.
- Ez duela organigramarik agertzen.
- Ez duela hirigintza-kudeaketari buruzko informaziorik xehatzen.

IV.6. COMPTOS GANBERAREN GOMENDIO-EN JARRAIPENA

Oro har, esan daiteke aurreko ekitaldiei buruzko txostenetan egindako administrazio eta kontabilitate izaerako gomendio nagusiak aintzat hartu direla, eta batzuk 2005ean ari direla praktikan jarritzen.

IV.7. LABURPENA ETA ONDORIO NAGUSIA

Laburbilduz, eta ondorio orokor gisa, adierazi behar dugu Lizarrako Udalak, ikuspuntu administrazioatik, ongi kudeatzen dituela bere aurrekontuak, baina beharrezkoa du:

• *Finantzen ikuspuntutik, gaur egun Udalak finantza egoera erosoak erakusten badu ere, egiten ari diren inbertsioak direla eta, aurreikusita dago 4,8 milioi euroko mailegu bat hitzartzea. Zama finantzario horri eta 2005eko abenduaren 31n dagoenari etorkizunean aurre egin ahal izateko, beharrezkoa da baliabideak sortzea eta gastua arrazionalizatzeko politika bat ezartzea.*

• *Aurrekontuaren kudeaketaren barne kontrolen mekanismoak indartu behar dira, egindako eragiketen erregulartasuna segurtatzeko eta bermatzeko; batez ere, saldoak berdinkatzeko eta berraztertze arloari eta inbentarioak gaurkotzeari dagokienez.*

- *Administrazio kontratazioaren gaineko araudiak eskatutako baldintza formalak betetzea, V.1. atalean zehazten den bezala.*

Erakunde autonomoari dagokionez, *jarduera kontrolatu eta babesteko bide eraginkorrak formalizatu eta betearazi behar ditu udalak.*

Alabaina, ez da ahaztu behar erakunde horren eragiketak, entitate publikoa den heinean, kontu-hartzailetza publikoaren menpe daudela; horregatik, eginkizun hori benetan bete ahal izateko prozedura egokiak taxutu behar dira.

V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

V.1. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA.

Atal honetan xehakaturik agertuko ditugu, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioak.

V.1.1. Hornidurak erosi eta zerbitzuak ematea

Kontratazio espediente hauek aztertu ditugu:

(eurotan)

Espedientea	Prozedura	Esleipenaren zenbatekoa
Komun publikoen garbiketa eta administrazioa	Negoziatua, prentsan iragarri beharrekoa	30.972
Merkataritza bizkortzeko plana	Negoziatua, prentsan iragarri beharrekoa	44.200
Guztira		75.172

Aztertutako espedienteak kontratazioari buruzko araudiari egokitu zaizkio, eta berdintasun, lehiakortasun eta publizitate printzipio oinarritzako errespetatu dira.

Eginiko berrikusketatik ondorioztatu dugu "Komun publikoen garbiketa eta administrazioa" izeneko espedientean ez dela agertzen Kontu-hartzailetzaren txostenik esanez kontratua esleitzeko kreditua badela eskuragarri. Bestalde, "Merkataritza bizkortzeko plana" espedientean ez dago jasota esleipen-hartzaileak aurkeztu dituela baldintza teknikoaren orrian ezarritako tributu-betebeharrei buruzko agiriak.

Horretaz gain, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak eta zenbait udalek –horien artean Lizarrakoak– 2004ko irailaren 23an sinatutako lankidetzaren hitzarmena berrikusi dugu. Horren bidez ezartzen da Lizarraldeko garraio erregularraren emakida-aldaketa finantzatzeko sistema. Hitzarmen horretan, departamentuak garraio horren kostuaren ehuneko 65 hartzen du bere gain.

Comptos Ganberaren gomendioak betez, erosketen kudeaketarako prozedura normalizatua aplikatzen da. Egindako berrikuspenean oinarrituta, ondoko gomendioak ematen ditugu:

- *Udalari eta erakunde autonomoari aplikaturiko erosketen prozedura idatziz garatzea, eta aholkularitza juridikoak nahiz udaleko kontu-hartzailetzak araudiari jarraituz bete beharreko eginkizuna berariaz zehaztea.*

- *Jarduketa bati buruzko dokumentazioa dagokion espedientean artxibatu beharko da. Espedientea osorik aurkeztu beharko da, araudiak eskatzen duen dokumentazio guztia daukala.*

- *Kontratuen erregistroa, datuak modu sistematikoan biltzea ahalbideztatzen duena, ezartzea.*

V.1.2 Inbertsioak

Hona hemen 2005ean eginiko inbertsio nagusien zehaztapena (inbertsio horiek 2005eko ekitaldian zehar aitorturiko betebeharren ehuneko 68 egiten dute, gutxi gorabehera):

Espedientea	Prozedura	Esleipenaren zenbatekoa	2005
Lur azpiko aparkalekua	Lehiaketa	4.487	855
María Vicuña Gaztediaren Etxea	Lehiaketa	1.561	1.122
Kirol-komplexuko proiektuaren idazketa	Ideien lehiaketa irabazi zuten proposamenen titularren artean negoziatua (2004-11-04)	891	442
Kale-garbigailua	Lehiaketa	130	130
Guztira			2.549

Aztertutako espedienteetan egiaztatu da oinarriko printzipioak –publizitatea, lehia eta berdintasuna– bete direla administrazio-kontratazioan.

“María Vicuña Gaztediaren Etxea” espedienteetan ez dira bete exekuzio-epeak, baina horren ondorioz ez zaio zigorrak jarri esleipen-hartzaileari, administrazio klausulen orrian hala aurreikusten bada ere.

“Lur azpiko aparkalekua” espedienteetan ez dago jasota kreditua egoteari buruzko Kontu-hartzailetzaren txostenik.

Ondotik, laburpen gisa, inbertsioen kapituluko gomendio aipagarrienak azalduko ditugu:

- *Administrazio-kontratazioari buruzko araudia betetzea, batez ere kontratazio-espeditentek betetzeari dagozkion alderdi formaletan.*

- *Inbertsio gastu guztien jarraipen egokia egiteko behar diren informazio prozesuak ezartzea, zenbait alderditan, hala nola betebeharrak bat aitoritzeko behar adinako aurrekontu-kreditua ote dagoen jakiteari dagokionez eta finantzaketa atxikia duten gastuei dagokienez.*

- *Dagokion zehapena ezartzea lanen exekuzio epeak betetzen ez badira.*

V.2. KUDEAKETARI BURUZKO BESTELAKO GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Comptos Ganbera honen aburuz udalak jarraitu behar dituen gomendio nagusiak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

Kasu batzuetan, gomendioak 2006ko ekitaldian betetzen ari dira.

V.2.1. Antolaketa orokorra

- *Aurrekontuaren likidazioa legez ezarritako epean onestea.*

- *Barne araubideari buruzko erregelamendua egitea; era horretan, udaleko organo exekutiboaren eskumenak definitu eta euren artean banatzeko eta erakunde autonomoekiko harremanak arautzeko.*

- *Oinarriko kudeaketa-prozedurak idatziz jartzeari, eta exekuzio-faseetarako arduradunak identifikatu eta esleitzea.*

- *Oroitidazkian sartzeari udalaren organigrama eta kontratazioari buruzko informazioa.*

V.2.2 Inbentarioa-lbilgetua

- *Udal ondasunen eskriturak egiten eta ondasunok erregistratzen amaitzea, hala jabari publikoak nola ondare-ondasunak eta komunak.*

- *1995eko udal inbentarioa gaurkotu eta onestea, eta altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotuta eta kontabilitateko ibilgetuarekin lotuta egotea ziurtatu eta erraztuko duena.*

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak aztertu eta garbitzea, udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.*

V.2.3. Diruzaintza

- *Udalak irekitako kontu korranteak, aspalditik mugimendurik izan ez dutenak, erregularizatzea.*

V.2.4. Langileak

- *Langileen kontratazioetan, epaimahai kalifikatzailearen eratze-akta egin behar da kasu guztietan.*

- *Udalaren eta bertako langileen hitzarmena eta Udal Musika Eskolako hitzarmen kolektiboa eguneratzea.*

- *Langileen espediente pertsonaletan jasotzea familia egoeraren zinpeko aitorpena.*

- *Idatziz garatzea langile bakoitzari esleitutako lanak eta nominak egin eta kontrolatzeari buruzko administrazio- nahiz kontabilitate-prozedurak.*

V.2.5. Transferentzia arruntak

- *Emandako dirulaguntzak, batez ere kirol jardueren arlokoak, berraztertze plan bat prestatzea, dirulaguntzak zuzen eman direla, udalak ezarritako baldintzei jarraikiz, sistematikoki bermatzeko modua emanen duena.*

V.2.6. Aurrekontuz kanpoko kontusailak

- *Erregelamendu bat ezartzea "Interes artistikoa duten obren atxikipenak" izeneko kontuan bildutako funtsen –1998koak– erabilera zehazteko.*

V.2.7. Alderdi orokorrak

- *Indarreko legediak ezarritako epeetan egin eta onestea aurrekontuak, kudeaketarako oinarrizko lanabesa izan daitezen, eta likidazioa azkartasunez egitea.*

Francisco Javier Sesma Masa auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2007ko abuztuaren 7an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 10ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Nafarroako Kontseiluari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2007ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (28. or.).
- II. Helburua eta norainokoa (29. or.).
- III. Iritzia (29. or.).
 - II.1. 2006ko aurrekontuaren betetze mailari buruz (29. or.).
 - II.2. Ondare-egoera (29. or.).
 - II.3. Legezkotasuna (29. or.).
- IV. Finantzen egoera-orriak (30. or.).
 - IV.1. 2006ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa (30. or.).
 - IV.2. 2006ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (30. or.).
 - IV.3. Eraitzen kontua eta eraitzen banaketa (31. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Kontseilua martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legearen bitartez sortu zen; lege hori, berriz, abenduaren 10eko 25/2001 Foru Legeaz eta abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeaz aldatu zen. 2000. urtean ekin zion bere jardunari.

2005ean, Nafarroako Kontseiluak bere aurrekontua eta kontuak modu independentean aurkeztu zituen, bere kontabilitatearekin.

2006ko plantilla organikoan bi langile daude: legelari bat, zerbitzu eginkizunetan, eta idazkari bat, aldi baterako kontratuarekin.

Nominak Nafarroako Gobernuak prestatu eta ordaintzen ditu, eta Kontseiluari egindako transferentzia arrunt gisa erregistratzen ditu zenbatekoak. Kontseiluak, bere aldetik, zenbateko hori dirusarrera arrunt gisa jasotzen du aurrekontuan. 2006an, langileei aurreko ekitaldi batzuetako atzerapenak ordaindu zaizkie; guztira, 2.189 euro egiten dute.

Aurrekontuak 589.417 euro egiten du. Gastuen exekuzioa 301.632 eurokoa da eta dirusarrerena, berriz, 490.430 eurokoa. Gastuen eta dirusarreraren betetze mailak ehuneko 51,17 eta ehuneko 83,20 dira, hurrenez hurren.

2006ko ekitaldiaren exekuzioaren emaitza gisa, superabit bat sortu zen, eta Foru Ogasunari 188.797,94 euro itzuli zitzaizkion.

Nafarroako Kontseiluak, kontsulta eginkizunak betez, 41 irizpen eman ditu ekitaldian, eta 18 bilkura arrunt eta hotsandiko bilkura bat egin ditu.

Azterketa lana 2007ko ekainean eta uztailan egin du auditoria-teknikari batek eta auditore batek osaturiko lantaldeak, eta Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntza izan du.

II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Nafarroako Kontseiluaren 2006ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena sartu zen 2007ko jarduketa programan.

Lan horrek ondoko helburuak ditu:

- 1. helburua. Nafarroako Kontseiluaren gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren betetzeak 2006ko ekitaldian egindako eragiketak behar bezala islatzen ote dituen egiaztatzea.
- 2. helburua. Egiaztatzea aurkezturiko finantzen egoera-orriek modu egokian islatzen ote duten zein den 2006ko abenduaren 31ko ondare-egoera, baita eragiketen emaitzak ere.
- 3. helburua. Fiskalizazioaren xede den jarduerari aplikatzekoa zaion legezketasun printzipioa bete ote den egiaztatzea.

Lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko sektore publikoko auditoriako printzipioei eta arauari jarraituz, zeinak Comptos Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatu batitu. Lanean, halaber, inguruabarren arabera, beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatu ditugu.

Esbertu nahi dugu Nafarroako Kontseiluko langileen laguntza, lan hau egitea erraztu duelako.

III. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Nafarroako Kontseiluaren 2006ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazio-orriak eta finantza-kontuak aztertu ditugu. Kontseiluaren ardurapean eginak dira, eta txosten honetako IV. atalean jaso dugu horien egoera.

Eginiko azterketatik eta berrikusitako laginetik honako iritzi hau ondorioztatzen dugu:

II.1. 2006ko AURREKONTUAREN BETETZE MAILARI BURUZ

2006ko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriak behar bezala islatzen du ekitaldi horretan egindako jarduerak.

II.2. ONDARE-EGOERA

Egoera-balantzeak eta emaitzen kontuak nahiko ongi agertzen dute finantza eta ondare-egoera 2006ko abenduaren 31n.

II.3. LEGEZKOTASUNA

Nafarroako Kontseiluak 2006ko ekitaldian izan duen ekonomia- eta finantza-jarduerak legezketasun-printzipioaren arabera izan da.

Txosten hau José Fuertes Pérez auditoreak proposatuta eman da, bera baita lan hau burutzeko erantzukizuna izan duena, behin indarreko legediak ezarritako izapideak bete eta gero.

Iruñean, 2007ko abuztuaren 21ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

IV. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK**IV.1. 2006ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

Gastuen kapitulu ekonomikoen arabera

	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Betebehar aitortuak	Ordaindutakoa
1. Langile gastuak	181.304,00	0,00	181.304,00	120.243,45	120.243,45
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	361.163,00	0,00	361.163,00	172.388,61	172.388,61
6. Inbertsio errealak	46.950,00	0,00	46.950,00	9.000,39	9.000,39
Gastuak, guztira	589.417,00	0,00	589.417,00	301.632,45	301.632,45

Dirusarreraren kapitulu ekonomikoen arabera

	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Eskubide aitortuak	Kobratutakoa
4. Transferentzia arruntak	542.467,00	0,00	542.467,00	481.406,45	481.406,45
5. Ondare-dirusarrerak	0,000	23,55	23,550	23,55	23,55
7. Kapital-transferentziak	46.950,00	0,00	46.950,00	9.000,39	9.000,39
Dirusarrerak, guztira	589.417,00	23,55	589.417,00	490.430,39	490.430,39

IV.2. 2006ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

AKTIBOA

Kontzeptua	2005	2006
IBILGETUA	58.695,97	67.696,36
IBILGETU MATERIALA	55.410,21	58.610,60
Altzariak eta tresneria	10.931,33	14.131,72
Informazioa prozesatzeko tresneria	17.579,68	17.579,68
Irudi korporatiboa	5.590,00	5.590,00
Bestelako ibilgetu materiala	21.309,20	21.309,20
IBILGETU EZ-MATERIALA	3.285,76	9.085,76
Aplikazio informatikoak	3.285,76	9.085,76
FINANTZA-KONTUAK	166.437,89	188.797,94
Bankuak eta kreditu-erakundeak	166.437,89	188.797,94
AKTIBOA, GUZTIRA	225.133,86	256.494,30

PASIBOA

Kontzeptua	2005	2006
FUNTS BEREKIAK	58.695,97	67.696,36
Ondarea	58.695,97	67.696,36
Epe laburreko zorrak	166.437,89	188.797,94
Foru Ogasun Publikoa hartzekodun, kreditu itzulketa dela eta	166.437,89	188.797,94
PASIBOA, GUZTIRA	225.133,86	256.494,30

IV.3. EMAITZEN KONTUA ETA EMAITZEN BANAKETA

2006ko ekitaldiko emaitza arrunten kontua

ZORRA		HARTZEKOA	
120.243,45	Langile gastuak	Finantza dirusarrerak	23,55
172.388,61	Kanpoko lan, hornidura eta zerbitzuak	Transferentzia arruntak	481.406,45
		Kapital-transferentziak	9.000,39
197.798,33	Aurrezkia (emaitza positiboa)		
490.430,39	Guztira	Guztira	490.430,39

Emitza doitua

ZORRA		HARTZEKOA	
197.798,33	Ekonomia eta ondare emaitza	Ondarea (inbertsio garbi aktibatua)	9.000,39
		Emitza ekonomiko eta ondareko doitua	188.797,94
197.798,33	Guztira	Guztira	197.798,33

2006ko ekitaldiko emaitzen banaketa

ZORRA		HARTZEKOA	
188.797,94	Emitza ekonomiko eta ondareko doitua	Foru Ogasun publikoa, kreditu itzulketak hartzekoduna	188.797,94
188.797,94	Guztira	Guztira	188.797,94

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	